



Eguzkipekoak
Pablo Sastre
Alberdania, 2003

Literaturan bertan

EZ DUT SOBERA OZEN ESANGO, badaezpada, baina Pablo Sastre da gure idazle ahaztua. Gure idazle ahaztuetako bat, bederen. Ez dut sobera ozen esango badaezpada, orain edozer jar daitekeelako modan berehala, batek daki ze mekanismo estrainioren araber. Ezin asmatuzkoak dira sare sozialen bideak. Baina, bai, ez da esaten dudan lehen aldia –gutxienez, neure buruari–: ez du behar bezalako aitortpenik izan Pablo Sastrearen literaturgintzak. Bost axola. Literatura beharko litzateke interesatzen zaiguna, ez hainbeste errekonozimendua. Eta handik ugari aurkituko dugu Sastre-Enean.

Narrazio luze-labur, azkenaldian saiakera, liburu berezi bat ebatsi diogu gaurkorako, harribitxia: 103 pieza labur, arin, ttiki, beste hainbeste liburutako pertsonaiengan inspiratutakoak. Jolasa sinplea da: jendeen historiak kontatzen dituzten liburuak irakurri, eta gero liburu bakoitzari buruzko testutxo bat idatzi. Irakurketarekin egin dituzun lagun horiek irakurleari aurkeztu, nolabait. “Azken batean, nire bizitza, hein handi batean, besteen bizitza baita, eta gehien miresten ditudan lagunetako asko liburuetan, ez hain gutxi liburu honetako liburuetan aurkitu ditut”. Hemen eta orain sinatzeko modukoak iruditzen zaizkidan hitzak.

Eguzkipekoak har daiteke irakurle baten irakurketan gida, katalogo, bilduma gisara. Har daiteke litera-

tura unibertsalaren laburpen gisara. Har daiteke ipuin liburu gisara. Har daiteke tarte honetan egiten saiatzen garen liburu iruzkin sorta gisara. Denetarik aurkituko duzu bertan: hango-hemengo, atzokogurko, beti ere lehenesten dela jende apalarekiko mira, errespetua, gorazarrea, ezezagunarekiko kuriositatea, desberdinarekiko burkidesuna. Literatura handiko tituluak bildu dira. Bestela askotan dira, ez idazleen liburuak, baizik eta bizitza zirrargarria izan duen jendearenak, ez gutxitan jende horrek berak idatziak. Eta kasu guztietan ere jakin-garri gertatuko zaizkigunak. Gerora Sastrearen saiakeretan aurkituko dugunaren zantzuak igartzen dira: “inork ez bide zuen sumatzen inolako erlaziorik bere konfortaren eta inguratzen zituen munduaren dekadentziaren artean”. Tarteka, gainera, umore dosi doiarekin gatzozpinduta: “Molloyk, beste aktibitate aipagarri batzuen artean, aldianaldian bere amari bisita egiten zion”.

Eta liburuak bururatuta, hondarreko hausnarketa bat: zenbat geratzen zaigun oraindik irakurtzeko, zenbat gauza gozo gordetzen dizkigun artean literaturak. Azken batean, literatura bizitzeko ustea sendotzen dizu Sastrearen liburuak. Non ez den literaturan bertan bizitzekoa. ■

Aritz Galarraga



EKILORE
Lorzaintza eta loradenda

© 943 795 546

Elorregi bidea · Arrasate (Gipuzkoa)
v_ekilore@yahoo.es



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

© 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com